

Irati Jimenez

# Atsekabe zaitut

IRUDIGILEA  
Iratz Inziarte



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2010eko abuztua

© Txalapartak  
© Irati Jimenezek testuarena  
© Iratz Inziartek marrazkiena

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.  
Navaz Vides, 1-2  
78 Posta-kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 703 934  
Faxa 948 704 072  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

ISBN  
978-84-8136-589-4

LEGE GORDAILUA  
BI. 2.257-10



*Roberts piratari. Seriotasun Uhartea txikitzeagatik,  
ontziaren norabidean sinisteagatik, itsasoratzeko  
gogoa pizteagatik. Zugatik, zuretzako eta nahi  
baduzu zurekin, kapitaina. Maitasunez.*



BOTILAREN zulotik edaten du, luzaroan probatuen aho bakarretik. Besteek haginka egiten dioten lekuan, Bombay Sapphirek besoetan hartu eta mundua nahi duen lekuan jartzen dio Urdin eta urrun. Andrea zotinka ari da, atsekabeen kontrako errezeta errazena eskuan: baso erdi gin, no tonik. Kristala, izotza, negarra, limoirik gabe. Badu aitzakia, urte eta erdi beltz, deabru. Mundua bere kontra, ukitzen duenak azala urratzen dio, hemezortzi hilabete putzuan, zuena galduta,





ez zuena urrun eta behar duena falta: sentsazio hori, azkenean hala edo nola okerrak zuzendu eta haizeak aldatuko direla dioen sentsazio hori. Katuak hankak laztandu dizkio, lehoiaren ile leunarekin. Gauaren bazterrak erpin egin direnerako, sukaldean bertan hasi da andrea botaka. Odola egin zaio sudurretik gorakadaren indarraz, eta harrira joan dira odol tanta epelak. Harrira, lurrera eta katuaren esne platerera.



Dibortzioarekin batera agertu zen animalia. Mixino hau, mixino bestea, ez dio inoiz izenik jarri. Ile beltza du, eta esnetik edaten duenean, ginebra tantak ere hartzen ditu. Andrearen negar guztiak lehortu direla ikusi eta berehala alde egiten du leihotik. Kanean zigarroa piztu du atzaparren itxura galdu duten esku fin zuriekin. Katu-ilez beterik o gabardina beltza bustitzen hasi zaionean, tabakoaren kea bota du eta arnasa sakon hartu.

Betile luzeak ditu eta zigarroaren buztanean ezpainetako kolorea uzten du beti. Euripean. Halaxe gus-tatzen zaio gehien-gehien Bilbo.

Deustura abiatu da.

TABERNA berean batzen dira, ostegunean, ostegunero. Zuloa dauka atzeko aldean eta katu-gorputza luzatuta erraz sartzen dira biak, iluntzen hasten denean. Gero, atea itxi dutenean, garagardoaren aparra gelditu denean, bezeroak desagertu, metalezko pertsiana jaitsi, sukaldea hoztu, irratia eta zigarrokinak mutu direnean, ilea azal bihurtzen zaie eta aulki bana hartzen dute, berdin dio zein, hortxe dagoen horixe, edozein. Bakarrik egiten dute lan, baina bada agintaritz bat, bada kate bat eta beren moduan katebegiak baino ez direnek astean behin elkartu behar dute, *gauzak honela doaz, honetan ari naiz, honek*

*halako emaitza eman du.* Errutina eta txostenak Deus-tun, goizaldeko orduetan. Urteak dira elkar ezagutzen dutenetik. Batek jarri zion besteari ezizena: Hamar. Eta besteak hari:

—Eme.

—Bai?

—Ongi zaude?

Pentsakor. Galduta. Arduraz blai. Ez, ez dago ondo. Ezin du burutik kendu bere azken lana, Ginebra Erregina.

—Ginebra Erregina?

—Hala deitzen diot.

Hamarrek irribarre. Beti izan du zulo txo hori aurreko haginaren artean. Umetasuna ematen dio, polita da.

—Baietz izan zeuri gustatzen zaizkizun horietakoa. Xamur-xamur horietako bat, ohean gero sorpresa ematen duena. Baietz?

—Lana da, Hamar. Ezingo nuke nahita ere oherako hartu.

Nahi baino zorrotzago ateratzen bazaio, Hamar ez da konturatzen.

—Badakit, neska.

Apalategira mugitu da, botila urdinaren bila. Li-mak barra azpiko hozkailuan aurkitu ditu. *Zure emakumetxo horren omenez* dio, aiztoa frutaren bihotzean bihurtu eta negarra ateratzen dion bitartean. Emek inoiz hartu dituen koparik onenak Ha-



marrek egin dizkio. Tabernari eskuak dituela esan ohi du eta bihotz mozkorra. Beti egin dute topa modu berean.

—Eskorbutorik ez —esan eta trago luzea, zuzenean odolera.

Batzuetan, Eme zaurituta etortzen da tabernara. Beste katuren baten urrukadak. Batzuetan Hamar, odoletan.

Halakoetan elkarri jartzen diote katu-ahoa giza-azala apurtu den lekuan eta miazkatu, minaren tau-padak desagertu arte. Ez ziren senideak jaiotzez, baina Katu Kalek anaitu zituen. Gaztetan adiskidetu ziren, gazte minez, burugabe eta zintzo. Panfleto mozkorrak idatzi zituzten eta gaupasa iraultzaileak egin. Hamarrek muxu eman nahi izan zion behin eta Emek eskuarekin urrundu zuen, «neskak» esanez, «neskak gustatzen zaizkit, txo». Hamarrek «a», Hamarrek «a, ostia, joder» eta barre, «joder, bale, bale». Meteoritoen antzera barre, lehertu beharrean. Behin atrebituko neska batekin eta «hara» ito zen barretan, «hara hara hara». Barrea agortu zitzaionean, bere poztasun zoroa jateko gogoia sentitu zuen Emek, eta muxu eman zion, eme-eme. «Goazen» egin zion tira alkandoratik, «goazen eta bila dezagun neska-karen bat zuretzat eta pare bat-edo niretzat». Goizaldeko ordu gordinak ziren. Fakultatean beti ziren goizaldeko ordu gordinak. Bekatua zen goiz esnatzea, bekatuago goiz oheratzea. Orain, gauerdian



agurtzen dute elkar. «Profesionalak lo egin behar du!», egiten du aldarri Hamarrek, etxera abiatzen direnean. Eta agurtu egin du batek bestea.

Ginebrari lima botatzea ingelesten asmakizuna izan zen. Marinelek bitaminak hartzeko ahalegina. Eskorbutoaren kontra. Gazteak ziren historia entzun zutenean, Hamarrek ginebra osasunarentzat onena dela erabaki zuenean. Orduan askoz beranduago etxeratzen ziren, etxeratzen zirenean.

—Ondo lo egin, printzesa!

NAHI, baina Emek ezin du. Atsedenaren misterioa ukatu zaio. Gauetan MDMA hartzen du, speed goizak, beti erne, beti esna. Lo beharko lukeenean, telesail zahar-kitua aurkitu du telebistan. Aspertuta, atzamarrak sartu ditu hanka artean. Husteko eta hustasuna betetzeko. Baina ez dio lagundu. Ginebra Erregina zeukan buruan eta ez dio batere lagundu. Ezpain bustietan labain egin duenean, haren pena leunean labain egiten zuela iruditu zaio. Ze gutxi lagundu dion.

Laneko azken enkarguen artean umea jarri diote. Hezurak usteltzen dizkion kontzientzia txarra ez zeukanean ere, gazte eta hasiberri zenean ere, *umerik* ez eskatzen zuen beti. Alferrik.

—Nork daki, jefa. Beharbada egunen baten poeta izango da.

Hamarrek tabernan esan diona, beti esaten duena.  
Propaganda.

—Bai —bere erantzuna, zer demontre esan behar  
zion bestela—, beharbada.

Gaur ere ez du lorik egingo.

UMEAK bost urte ditu. Emek kale bazterretik ikusi du,  
autotik atera dutenean. Erdi lo doa, aitaren besoetan,  
adurra dariola, betile luzeen eta kaleko argien mira-  
ri epel eta hauskorra baino ez da. Gurasoek Nestor  
deitzen diote. Izenak zerbait esan nahi duen leku  
bakarrean, Emek beste izen bat irakurri dio.

*Zu, mutiko, Neke deitzen zara.*

Goizaldeko hiruretan umeak katua dauka begi-  
ra leihoaren beste aldean. Bere lehen amesg aiztoa-  
rekin esnatu ditu gurasoak, garrasika. Ametsetan,  
argizarizkoa zuen ama eta besarkatzen zuenean,  
esku artean urtu egiten zitzaion.

*Barkatu, Nestor Neke.*

—Poetak amesgaiztoak behar ditu, jefa —esan dio  
Hamarrek.

Kolkotik oratu nahi izan dio eta ito, momentu  
horretan.

LOEZINAREN kontra Emek mezua bidali du, halakoe-  
tan bidali duen telefonora. Batzuetan beroa eta ohea  
ematen dizkion laguna, ostera, beste zerbaitetan  
dabil. «Barkatu, guapa», bere erantzuna, «gaur ezin,  
baina nahi duzunean kobratu aukera galdua».

«Ok» erantzuten dio. «Mxk».

Zera nahiko luke idatzi, «aukera galduak ordain-  
tzeko ez dago munduan dirurik, laztana».

KALETARREK, Ginebra Erreginak, Nestorren gurasoek  
ez dakite existitzen direnik. Nor diren, zer egiten  
duten, ez dakite. Agerian dagoen munduk o sekre-  
turik gordeena dira. Urteetan zehar hainbat izen  
eman dizkiete beren buruari. Katu Beltzak, Miseria  
Lagunak, Iluna. Ez dago alde handirik, beren lana-  
ren eta beste lan gehienen artean. Gizon batzuek  
torlojuak egiten dituzte edo ekonomialariak dira edo  
irakasleak. Beste batzuek botoiak saltzen dituzte, edo  
autobusak gidatu edo auto-saltokietan irribarrea jan-  
tzi. Lana lana da. Batzuetan auto saltzaileak gezurra  
esan behar du («nik hauxe erosiko nuke, garestiagoa  
da, baina etxean hauxe daukagu eta merezi du»).  
Batzuetan ekonomialariari esaten dioten gezurra  
jasan behar da («geuk ere sentitzen dugu kontratua  
ezin hobetzea, ekonomia, badakizu, inork badaki zen-  
bat ordu egiten dituzun, geuk dakigu baina...»).

Batzuetan gezurra esan, jasan eta izan behar da («nora joango nintzateke orain, ez dut inoiz goranahirik izan, osasuna dagoen bitartean, enpresan estimatzen naute...»).

Aitzakiak hortxe daude, jakina. *Nik beste zerbait egin nahi nuen. Ez zen hau uste nuena. Erantzukizunak jarri behar dira ameskerien aurretik*. Emek halakoren bat nahiko luke, ispiluarekin duen haserrealdia baretzeko. Baina bere irudia ikusi eta, ze demontre, nahi zuen lekuan dago, eskatutakoa egingiten. Putasemetu izan balitz. Edo kikildu. Baina ez, ez da hori. Nazkatu egin da. Konturatu gabe hasi zen nazkatzen eta orain nazkaz haratago dago Aukera egokien biktima da.

—Hori ez genuen etortzen ikusi, e, Eme?

Bere buruari, ispiluan. Errimela eman ondoren, ezpainak gorritu ostean. Jarri eguzki-betaurrekoak, hartu zigarroa eta kalera.

Beste *kaka* horretara.

SAKONEAN, bere lana teknika kontua baino ez da. Baina Eme ona da, Eme oso ona da eta horrexegatik ez zaio nabaritzen teknika.

Arte Ederretako museoaren kafetegian Converse zapatiladun neskatoa eserita dago. Hamasei urte, hortxe-hortxe. Telefonoaren pantailari begira, begi

ertz urduriekin. Mezu, deiren baten zain. Larunbat goiza gaur, ostiral gaua bart, mezurik iristen ez bada ez da izango halako beste ostiralik. Baina iritsiko da. Iritsi beharko luke, eman zion bere telefonoa, hartu zuen, iritsi beharko luke, ez? Kontzertu perfekturik, kontzertu osteko xirri epelik, muxu berorik. Idazten ez badu, ahaztu ostiralak, ahaztu larunbatak, ahaztu ostegunean etxeko lanak egiteko geratzea lanik egingo ez dutela jakinda, ahaztu errotulagailuz zikindutako atzamarrak elkarren zirrikituetan sartzeko aitzakia: ahaztu. Deitzen ez baduka eta deituko baluka aritzeak sortzen dion egonezina pasatzeko, izozkia eskatzen du. Tutti fruttia, probatzearren. Mingainarekin ukitu bezain laster (beste baten ahoan sartu zuen atzo, aiamazakilaukituzion), telefonoak ikara egin dio, bakeroen poltsikoan, behin. Hartu, irakurri eta irribarrea. Hemendik haraino iristen zaiona, hamar metro irribarre. «Oso gustura atzøea elkar ikusten dugun berriz ;- )». Behin irakurri duñirritan.

Katua etorri denean, irribarrea hoztu zaio.

Idatzi dio, bai, baina zergatik ez dio deitu? Ez ote zion esan deituko ziola? «Ea elkar ikusten dugun». Ea? Zer esan nahi du horrek? Ez duela ahaleginik egingo? Ea, gera gaitezen? Ea, geratzen ez bagara, enpin, zer egingo diogu, gorputz guztiak epelak dira eta bilatuko dut besteren bat? Ea pisua da, urdailaren ahoan. Eta izozki gogoa kendu dio. Tutti fruttia, gainera, gozoegia da eta ez zaio batere gustatu.





«Beharbada katuari gustatuko zaio», pentsatu du eta lurrera bota.

Bertan geratuko da. Emeri ez zaio izozkia gustatzen eta lana egin ondoren ez da inoiz geratzen bihotz hautsien hondamendirako. Etorri, egin, utzi katutasuna bazter ilunen baten, jantzi betaurrekoak eta hortxe, beti urrun dirudien emakume zig arrodun isila. Bere teknika perfektua, bere miseria biluzi eta apaindurarik gabea miresten dizkiote gazteagoek, lankideek, Akademiak. Katu Kalen, denek ezagutzen dute, izena errespetatu, izana goretsi, edana oparitu. Baina Eme aspaldi ez da Katu Kalera joan, erre egiten dute gorespenek, mindu laudorioek, goragaletu izen onak.

Behin maite zuen lekuko erregina da. Zertarako balio dio ezin badu lekuaren izena bera ere jasan?

#### KATU KALE.

Bilboko bazterretan barreiatutako hiri ezkutua. Hamalau urte zituenean ikusi zuen lehen aldiz. San Antongo zubia zeharkatu behar zuen, ibaiak petrolioeko mila kolore zituen. Atxurira sartu zen trenan, eta karranka egin zuenean, munduaren zutabeek doministiku egin zuten. Zergatik ez zekiela, Katu Kale agertu zitzaion begien aurrean. Bilboren arrakalen artetik agertu zen, bere dorre ketuekin, kanpai ilun, eliza apurtu, kristalezko zubi, brontzezko

bihotz. Sekula ikusi gabeko hiria ikusi zuen, baina ez zen hiria, hiriaren aukera galduekin, bere porrot guztien amaraunean eraikitako hiri zatia zen, Bilboko bazterrik luzeena, Bilboko bazterretan desordenatua, ostendua, galdua. Maitemindu egin zuen, pozoi sarkorraren antzera, eta gorroto du orain, orduan maite zuen halako hiru. Ai, egiten dio gorputzak bertara hurbildu eta aurrera egitek o adorerik aurkitzen ez duenean, ai, ai, ai, Katu Kale.

LIBURU baterako elkarrizketatu zuten. Aspaldi. Neska gaztea etorri zitzaion etxera, ikaslea. Belaunaldi barentzat baino gehiagorentzat eredu zela esan zioneta berak seinalaturiko bidetik beste batzuk joango zirela.

—Miretsi egiten zaitugu askok —izerdia zuen, tanta zoragarri bat, titi artean labain. Emek mingainaren puntan hartu nahi zuen eta hankarteko tontorxoan utzi, han urtu arte—. Miretsi egiten zaituguzuk uste baino gehiago.

Ezpainak busti zituen, Emek katu bihurtu eta alua miazkatzeko gogoa sentitu zuen, eta behar bada hortxe hasi zen. Ordu arte lana lana zen, Emek egin egiten zuen. Batzuetan dudekin; gehienetan, arnasa hartzen den bezala, oharkabea. Baina une hartan ikasle haren titi arteko izerdiak esan zion munduan bideak daudela eta batek ezin duela pausorik eman beste batzuentzako biderik zabaldu gabe.

Ardura ernaldu zitzaion, bat-batean. Eta arduraren ostean, damua.

Labainkor eta hiltzaile, bare eta zorrotz, damu santu eta hiltzailea.

BARRA atzeko ispiluan beti da 1984. Athleticek Liga eta Kopa irabazi ditu eta bihotzak zuri-gorritu betiko. Eme eta Hamar, hormako zulo txikitik sartzen dira Deustuko tabernara. Kanpoan Katu, barruan botila erdi gin. Normalean ez diete arg azkiei begiratzen baina gaur...

—Pozik dirudite.

Gaur Emek banan-banan begiratu ditu. Antzinako garaipena infinituraino luzatua. Hamarrek logikoa dela dio.

—Poza tximista baino ez da, Eme. Dardara. Iraunarazi nahi bada, argazkiekin momifikatu behar da. Pozak ezin du iraun, badakizu.

Ez du, ba, jakingo. Ikasten ari zenean, tabernetako barretara igotzen zen entzun nahi zuenari penaren misterioak argitzeko. Gaztea zen eta sinesten zuen Katuen Iraultzan. Hamarri begirada aldatzen zaio akordatzen denean. Nabari zaio malenkoniaren usain sarkorrak poztu egiten duela.

—Orain, ondo egindako lanean sinesten dut, Eme.

Ez dio galdetzen, ez luke erantzunak aseko. Baina hortxe dago galdera. «Eta zuk, jefa, zerbaitetan sinesten duzu?». Zer ez lukeen emango erantzuna



jakiteagatik. Eta Hamarrek zerbaitetan sinetsi behar dela esaten dionean irtenbide errazik ez bilatzeagatik, zer ez!

—Lasai. Sinesten dut, Hamar. Momentu honetan, zaude ziur, gintonik honetan sinesten dudala eta zuk eta biok bihar goizean izango dugun ajean.

—Amen, jefa.

Klausk egiten dute topa kristalezko kopa zabalekin eta gaua luzatu, goizaldeko kale bazterretan abesten. Emek bere klasikoak, lotsagarrienak ahaztu gabe, *El de en medio de los Chidos* tartean, hamar urte lehenagoko gaupasa gogoangarri baten omezez. Ez dago ez dirudien ez nahik o lukeen bezain mozkor, baina erraz ohitu da itxurak egitera.

*Ez dut jada gudan sinesten, Hamar, baina kontsolatzen bazaitu zudan galdutako fede garau bakoitzak zatitu egin nau, beste ezerk zatitu ez nauen moduan. Minberago, sakonago eta zekenago.*

Goizean eskertu egiten du buruko mina.

AJEAREKIN kostatu egiten zaio pentsatzea eta horrek erraztu egiten ditu lan burokratiko, aspergarriak. Enkargu bakoitzaren ostean tokatzen da, txostena betetzea. Hileko lehen astelehenean koaderno beltza erosten du. Eta letra etzanarekin apuntatu Arte Ederretako museoko neskatoaren berri. Ana deitzen da. Emek beste modu batera bataitzen du, ordea.

*Miss Converse. Doña Kasilda parkearen ondoan bizi da. 17 urte bete berri. Ile luze, gorri, betea; argalaredo; dena azal, labanaz mozturiko hegal antzeko besoak. Ilusioa zuen hauskor. Gazteak errazago apurtzen dira. Bihozgoratik bihozminera begiratze hutsarekin, ukitu gabe.*

